

Estrabon idazlariak, Jesus sortu aintzineko mendean zion, harritzeko zela nola Kantabrian, emazteak ziren etxeko buruzagi eta familiari deitura emaille... Orduko erranek badukete zer bait oiarzun gaurko gure bizi-moldean ere.

IRAKASKINTZA LIBURUETAKO EUSKERAREN DESBERDINTASUNAK

X. Mendiguren

Azken aldi honetan euskarazko liburuak-haurrentzakoak batipat— eurrez argitaratzen dira, eta berauetan erabiltzen den euskara batuari bagagozkio, aurrerapen nabari bat egin dela bistakoa da. Hala ere, talde desberdinek argitaraturiko liburuen konparaketa bat eginez gero desberdintasun ugari aurkitzen dugu. Desberdintasun hauk, ia guztiok, akordiorik eza eta zabarkeriaren ondorioz eginak direlakoan nago, honetarako funtsezko arrazoirik ez baitut ikusten kasu gehienetan.

Egoera hau bi arrazoik larriago egiten dute: aipatu desberdintasun hauk agertzen direnoko liburu gehienek, nola-hala Euskaltzaindiaren eritzia, orraztapena edo gainbegiratuarekin argitaratuak ditugu eta honetarako zer erizpidez baliatu den ez da bat ere argi ikusten.

Bestalde, liburuok haurren eskuetan ipintzeko eginak dira eta anarkia hau konpontzea ezinizkoa ez delarik, alferrikako nekeak elkargainkatzea besterik ez dugu egiten, honez aparte nahiko lanekin euskara ikasten ari den haurraren gan.

Egoera hau lehenbailehen buka dadin proposamen batzuk egitera ausartzen naiz:

a) Euskaltzaindiak pertsona nahiz talderen bat izentatu beharko luke azken aldiotako liburu guztiak aztertzeko, haurrentzakoak eta irakaskuntzakoak batipat eta hauetan agertzen diren desberdintasun zerrenda bat eratu beharko luke.

b) Desberdintasun guztiok aztertu ondoren forma egokiak proposatu eta gomendatu beharko lituzke eta liburugin-tzan ari diren talde desberdinen eskuetan ipini beharko lituzke.

c) Orraztapena edo gainbegiraturia hartzeko etortzen diren liburu guztiak pertsona edo talde jakin baten eskuetatik pasatuko beharko lukete eta eginkizun hau ahalik eta zehaztasun handienaz burutu beharko litzateke.

d) Azken aldi honetan talde eta erakunde asko ari da itzulpenak egiten eta terminologia berri bat lantzen. Hau guztia Euskaltzaindiak zentralizatu beharko luke eta sistematikoki bildu, zerrendatu eta argitaratzea behar beharrezkoa da, informabiderik ezagatik indarrak barreiatzen eta anarkia indartzen ibil ez gaitezen.

e) Agian, itzultzaile talde bat prestatzea eta eratzea ere egokia izan liteke.

Hemen aipatzen dudan problema honen agiritzat, neronek presaka eta azaletik egin dudan azterketa baten ondorioak eskeintzen ditut, zer eratako desberdintasunak liburutik zehar aurki daitezkeen erakusteko. Zerrenda hau egitean, alde batetara utzi ditut gramatikazko oker eta huts nabariak direnak. Egia esan, horrelakoak ere sarri samar aurkitzen dira, sintaxiari dagozkionak batipat.

Dena den, egoera honek erremedioa eskatzen du nire ustez, eta konponbideak zailtasun tekniko handiegirik ez duelakoan nago. Guztiok dugu hitza.

albaiteru	albaitari
tristetu	tristatu
hozgailu	hozkailu
hegan	hegaz, hegal
ifar	ipar
batean	batetan
noizpatik	noizbait
bailitzan	bailitzen
suztar	suster, sustrai
gutti	guti, gutxi
gainuntzeko	gainerako (gainerantzeko)
arrazoin	arrazoi
igaro	eman (pasatu)
bait dira	baitira
etxeruntz	etxerantz
izenetaz	izenez
haina, aina	adina

mihin
miazkatu
saltaka
hasarre
postalari
isil
arrantza
sapai
iragarri
azaro
eze
jakinduri
gaztaia
kainabera
irrifar
ukilu
kaxo
biguin
arraindegi
gizarajo
ken arazi
jardun
kiskali
hontan
hortan
abots
leize
hertsu
hemezortzi
edur
sorailu
pizkor
laister
karakol
zakur
indar asko
paretatxori
farre
negar
iduritu
nere

mihi
mihiztatu
saltoka
haserre
postari
ixil
aharrantza
sabai
igarri (igerri)
hazila
heze
jakinduria
gazta
kanabera
irribarre
ikuilu
kaixo
bigun
arrandegi
gizajo, gizaixo, gizagajo
ken erazi
ihardun
kiskaili
honetan
horretan
ahots
leze
hitxi, hetsi
hamazortzi
elur
solairu
bizkor
laster
barraskilo, barakuilu
txakur
indar handia
ormatxori
barre
nigar
iruditu
nire

xistu
guzi
kapelu
ahal?
bai eta... ere
badut
irteten
igaro
haundi
arrantzo
ximini
mugitu
neskats
kabi
ttipi
lehen bait lehen
mahain
hauk
horik
haik
azkaria
igo
errez
horma
jolastu (gara)
zertara jolastu
batzuk
jarraitu (dute)
zer-zein
fabrikak dariote
nire-neure
gizen/zen
lagun/

txistu
guzti
kapela
al?
baita... ere
ba dut
irtetzen
gurutzatu, pasatu, zeharkatu
handi
arrantza
tximini
higitu
neskatx
kabia (habia)
ttiki, txiki
lehenbailehen
mahai
hauek
horiek
haiek
askaria
igon
erraz
orma
jolastu (dugu)
zertan jolastu
batzu
jarraiki dira